

GAMIZ

— ARABA / ÁLAVA —

Gamiz Arabako Lautadan dago, Gasteizetik 8 km ingurura. Lizarrara doan errepidetik iristen da herriira, A-3104 errepidea hartuta, Okinarako norabidean, Otazu zeharkatu ondoren.

Donemiliagako Reja izenekoan ager da, golde-burdina bateko ekarpene egiten zuen-eta, Alfoz de Harhazuaren barruan. Aznar gotzainaren parrakien zerrendan ezarritakoaren arabera, Gamiz herriak, 1295ean, Don Almoraviden sasoian, apaiz onuradun bat bidali zuen Armentiako Artzapeztekiko bilerara. Herrian bi ermita egon ziren. Bata XVIII. mendean desagertu zen, eta bestea, San Ginesi eskainia, 1850ean behea jota zegoen. Biztanleria oso urria izan da, iraganean zein orainaldian, eta gaur egun hamazazpi auzoko ditu.

Gamiz, localidad situada en la Llanada alavesa, dista unos 8 km de Vitoria-Gasteiz desde donde se accede por la carretera Lizarra-Estella, tomando la A-3104, dirección a Okina y pasando por Otazu.

Citado ya en la Reja de San Millán, a la que contribuye con una reja, dentro del segundo alfoz de Harhazua, y en la lista de parroquias del obispo Aznar, también consta que Gamiz envió en 1295, en época de don Almoravid, un beneficiado a la reunión del Arciprestazgo de Armentia. Contó el lugar con dos ermitas, una desaparecida en el siglo XVIII y otra, dedicada a San Ginés, arruinada ya en 1850. Su vecindario ha sido muy escaso, tanto en el pasado como en el presente, contando en la actualidad con diecisiete vecinos.


Santa Eulalia eliza / Iglesia de Santa Eulalia

PARROKIA BASERRI txikien goiko aldean dago, eta garai errománikotik portada soilik kontserbatzen du, hegoaldeko horman. Elizpearen teilitatua arkuteriak osatzen du. 1785ean eraiki zuten. Kanpoaldera harlanduzko dobelen erdi-puntuko hiru arkuren bidez irekitzen da.

Portadak berantiarra dirudi eta zistertarren joera puristako apaindura-soiltasunaren barruan sartzen da. Arku zorrotz handi bat du, baketoidun arkiboltekin, eta bost zutabe paretan eusten da. Zutabe horiek fuste lisoa dute, harroinak apainduta daude, eta apaindu gabeko zutoinean oinarritzen dira. Beste bi zutabe daude, portadaren kanpoko alboetan. Zutabe horien fustea inposta-leerroaren gainetik jarraitzen du teilitu-hegaleraino, portada markoztatuz. Kapiteletan, landa-inguruko lokalismoa erakusten duen lanketarekin, gizaki baten burua ageri da, eta beheko aldetik esku bat ateratzen da, kopa bat eutsiz. Ezkerrean dagoenak behiaren burua du, eta ahoan animalia bat ikusten zaio. Gaineroako kapiteletan gutxi markatutako apaindura begetala edo maskaroi oso lauak ageri dira. Horien gaineko inpostak ez du apaindurarik. Sei harburutxo kontserbatzen dira, bi ezagutezinak, hondatuta dau-denez gero, hiru gizakien buruekin eta azkena zezenaren buru batekin. Kapitelak eta teilitu-hegaleko harburutxoak 2001ean egindako zaharberritzean atera ziren argitara.

EL TEMPLO PARROQUIAL se levanta en lo alto del pequeño caserío, y conserva del período románico únicamente su portada, situada en el muro sur. Queda cobijada bajo un pórtico de techumbre de viguería, construido en 1785, que se abre al exterior por tres arcos de medio punto de dovelas de sillería.

La portada parece tardía y se incluye dentro de la austereidad decorativa de la corriente purista cisterciense. Consta de un gran arco apuntado, con arquivoltas baquetonadas, que se apea en cinco pares de columnas adosadas de fuste liso y con basas decoradas sobre podio sin decorar. Hay dos columnas más, en los flancos exteriores de la portada, cuyo fuste continúa sobre la línea de imposta hasta el alero, y enmarcan la portada. Los capiteles, de talla anclada en un localismo rústico, presentan, en los flancos exteriores, una cabeza humana de cuya parte inferior sale una mano que sostiene una copa y, el situado a la izquierda, muestra una cabeza de bovino que sostiene un animal en su boca. El resto de capiteles se ornamenta, o bien con decoración vegetal poco marcada o con mascarones muy planos. La imposta que corre sobre ellos carece de decoración. Se conservan seis canecillos, dos de ellos irreconocibles por su deterioro, tres con cabezas humanas y el último con una cabeza de toro. Tanto los capiteles



Portada / Portada



Portadako xebetasuna / Detalle de la portada

Zaharberritze-lan horietan, arkupeko teilituaren altuera altzatu egin zen.

Parroquia honetan intxaurrondoarekin egindako kuxatila dago, neoklasikoa, eta barruan San Segismundoren gorpuzkiak daude. 1949an ekarri zituzten Bolibar auzoko herritik, tenplua aurrietan zegoen eta. Horma-hilobiaren gaineko kartelean, honako hau irakur daiteke: *aquí yaze el sagrado cuerpo / del glorioso s. Segismundo / martir rey de Borgoña.*

Testua eta argazkiak: MPGK

como los canecillos del alero salieron a la luz en una restauración llevada a cabo en el año 2001, que elevó la altura de la cubierta del pórtico.

Se conserva en esta parroquia una arqueta de nogal, neoclásica, con los restos de San Segismundo, que fueron trasladados, en el año 1949, desde la vecina localidad de Bolívar a causa del estado de ruina de su templo. En un letrero sobre el nicho se lee: *aquí yaze el sagrado cuerpo / del glorioso s. Segismundo / martir rey de Borgoña.*

Texto y fotos: MPGK

Bibliografía / Bibliografía

BILBAO LÓPEZ, G., 1994, p. 118; LABORDA YNEVA, J., 2003, pp. 338-341; LÓPEZ DE GUEREÑU, G., 1962, p. 258; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J., 1988a, pp. 482-486; PORTILLA VITORIA, M.J. et alii, 1975, p. 405, fig. 586-587.